

## Mondragon Unibertsitateak eta MONDRAGON Korporazioak, euskeraz eginiko ikasketa amaierako proiektuak saritu dituzte

2014/03/05

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan eman dira gaur euskaraz aurkeztutako ikasketa bukaerako lan onenari sariak. Edizio honetan bi saritu egon dira eta biak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak izan dira. Lehenengo sariaren irabazlea Ander Malbadi, Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterreko ikaslea izan da, ORONarentzako egin duen "Igogailuen gida-sistemaren neurgailua" lanarekin. 1.500 euroko saria eman diote edizio honetan. Bigarren sariaren irabazlea berriz, Amaia Bueno, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduko ikaslea izan da, IDEKOrentzako egin duen "Proteomika arloan lagin prestaketarako makina-prototipo baten diseinua eta fabrikazioa" lanarekin. Kasu honetan, 500 euroko saria eman diote.

Sari hau MONDRAGON Korporazioko Euskara Batzordearen ekimenez sortu zen orain hiru urte eta ikasleek unibertsitateetik lan mundura jauzi egiten dutenean ikasketa amaierako proiektuak euskaraz egitea sustatzea du helburu. MONDRAGON Korporazioak bere Plan Estrategikoan jaso zuen erronka hori eta 2010ean lantalde bat sortu zen Korporazioko eta Mondragon Unibertsitateko fakultateetako kideez osatuta sari hori abian jartzeko. Mondragon Unibertsitateko ikasleek MONDRAGON Korporazioko erakundeetan egin dituzten proiektuak aztertu eta ebaluatu dituzte hiru fakultateetako bina kidek eta Korporazioko ordezkari batek.

Guztira, Mondragon Unibertsitatean, 176 proiektu egin dira euskaraz eta 32 proiektu aurkeztu dira sarira Enpresagintzatik, Goi Eskola Politeknikotik eta HUHEZItik. Iaz berriz, 132 proiektu egin ziren euskaraz eta 42 aurkeztu ziren sarira. Aurkeztutako lan guztiak maila tekniko altuko proiektuak dira, eta proiektu irabazlea euskaraz ondoen idatzitako lana izan delako nabarmendu da.

Aurtengoa, sari horren 3. edizioa izan da, eta urtero antolatzeko asmoarekin jarraitzen dute Mondragon Unibertsitateak eta MONDRAGON Korporazioak. Hurrengo edizioetan partaide kopuruak gorantz egitea espero da.



Sari banaketako irabazleak